

Kirol elkarte eta taldeei diru-laguntzak 2018

Oñatiko Udalak, 2018ko otsailaren 22an egindako Tokiko Gobernu Batzorde bileran, kirol arloan diru-laguntzak emateko 2018ko deialdia onartu zuen. Ondorioz, bi diru-laguntza lerro ezberdinen oinarri arautzaileak eta dagozkien deialdiak abiarazi dira:

- 1.- Oñatiko Udalerriko kirol elkarteek kirola sustatzeko antolatzen dituzten ekintzetarako diru-laguntzak
- 2.- Kirol arloan ohiz kanpoko jarduerak antolatzeko diru-laguntzak

Horrela, Udaleko Kirol Batzordeak, eskaerak jasotzeko deialdia egin zuen, eta diru-laguntzak emateko lehiaketa prozesu irekia abiarazi.

“Kirol arloan ohiz kanpoko jarduerak antolatzeko diru-laguntzak” diru-laguntza lerroari dagokionez, 3 kirol elkarte egin dituzte eskaerak. Horrela bada, aipaturiko araudiak jasotzen dituen irizpideen balorazioan oinarrituz, herriko kirol eragile horiei honako diru-laguntza hau ematea proposatzen du Batzordeak:

Kod.	Ekintza	Proposamena 2018
1	Lasterketen homologazioak / Atxintxiketan	1.200,00 €
2	Lasterketak GAFan txertatzea	200,00 €
3	Lizentziak / Atxintxiketan	250,00 €
4	Lizentziak / Udana	300,00 €
5	Amillena Aire Taldea	200,00 €
		2.150,00 €

Bestalde, “Kirol arloan ohiz kanpoko jarduerak antolatzeko diru-laguntzak” diru-laguntza lerroari dagokionez, 9 kirol talde edo/eta kirol elkarte bideratu dituzte eskaerak, urtean zehar 13 kirol ekintza ezberdin antolatzeko. Horrela bada, aipaturiko araudiak jasotzen dituen irizpideen balorazioan oinarrituz, herriko kirol eragile horiei honako diru-laguntza ematea proposatzen du Batzordeak:

Kod.	Ekintza	Proposamena 2018
1	Oñatiko binakako pilota txapelketa	1.500,00 €
2	Herriko futbol txapelketa (Beteranoak)	728,05 €
3	Oñatiko III. Mendi martxa	1.500,00 €
4	Orientazio Lasterketa (Atxintxiketan)	500,00 €
5	Udana XII. Igoera (Udana KE)	1.000,00 €
6	Basoko 3D Arku-tiraketa ligarako 3. Jardunaldia (Txantxiku Arkulariak KE)	260,00 €
7	Basoko 3D Arku-tiraketa Gipuzkoako Txapelketa (Txantxiku Arkulariak KE)	400,00 €
8	San Migel jaixetako erakustaldia (Txantxiku Arkulariak KE)	300,00 €
9	Torreazuko krosa (Eraun elkarte)	1.000,00 €
10	Oñati-Arrasate herri lasterketa (AED elkarte)	1.000,00 €

11	Oñatiko arrantza txapelketa	300,00 €
12	Oñatiko ehiza txapelketa	150,00 €
13	Goitibera lasterketa (Udana KE)	300,00 €
		8.938,05 €

Gaia aztertu ondoren eta Ogasun zein Kirol Batzordeen irizpenak aldekoak direla kontuan hartuz, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki hauek hartu ditu:

1.- Balorazioa onartzea eta horren arabera aipatutako diru-laguntzak ematea.

2.- Araudian jasotakoaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki du diru-laguntzak lortu dituzten taldeei adieraztea laguntzaren %60 aurreratzeko honako hau bete beharko dutela:

.- Eskatzaileek eskaerarekin batera aurkeztu behar izan duten dokumentu guztiak aurkeztuta izatea.

.- Bigarren zatia (diru-laguntzaren %40) jaso ahal izateko jardueraren memoria aurkeztu beharko dute, ekintzaren memoriak aurkezteko azken eguna 2018ko abenduaren 1a dela garbi utziz.

3.- Elkarteei gogorarazten zaie:

.- Fakturen bidez justifikatutako gastuengatik soilik jasoko dutela diru-laguntza, ez da bestelakorik onartuko.

.- Ekintzen memoriak aurkezteko azken eguna 2018ko abenduaren 1a dela gogorarazten da.